

Manuel Lekuona saria, Jean Louis Davanti

Idazle eta euskaltzainak euskara eta euskal kultura indarberritzeko egin duen «etengabeko eginahala eta lana» azpimarratu ditu epaimahaiak • 2017ko lehen hiruhilabetekoan jasoko du saria

Mikel Lizarralde

Jean-Louis Davant (Ürrüstoi-Larrabile, Zuberoa, 1935) filologo eta euskaltzaleak eskuratu du 2016ko Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria. Epaimahaiak nabarmendu du euskararen eta euskal kulturaren eremuan egin duen ahalegina, eta esan du azpimarratzekoa eta goraiatzekoa izan dela haren ekarpena: «Bat egiten du Manuel Lekuonak euskara eta euskal kultura indarberritzeko izan zituen kezkekin». Epaimahaiaren arabera, belaualdi oso baten erreferente bilakatu da Davant. «Zuberoako errealtatea argi islatzen du berak,

eta bere lana Euskal Herri osoari eskaini izan dio beti, katea eten ez dezan lagunduz». Epaimahaiak azpimarratu ditu Arantzazuko 1968ko bilkuran eginiko ekarpenak, eta euskararen batasun proiektuan egindako lana.

Davant Enbata talde abertzalearen bultzatzaileetarikoa bat izan zen 1960an, Piarres Lartzabalekin eta beste askorekin. Ondoren, EHAS Euskal Herriko Alderdi Sozialista (1975) eta Euskal Batasuna (1986) alderdien sorreran parte hartu zuen.

1963an, Baionako Euskal Idazkaritza Elkartearen kide izan zen, euskara idatziaren batasunari bidea bilatzeko. Baionako Biltzarra-

ren Erabakiak 1964an aurkeztu zituzten, Piarres Lafitte euskaltzainaren zuzendaritzapean. Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarrean Baionako erabakiak ontzat eman zituen, Koldo Mitxelena txostena bere egitean. Euskaltzaindian, izan ere, bereziki onomastikaren eta hiztegitzaren alorrean aritu da 1978tik.

1984tik aurrera, Hazpainen AEK-ko irakasle izan zen, gau eskolak ematen, eta Euskal Pen Klub berreginarean buru aritu zen aurrerago. Halaber, Su Azia elkarte kide da.

Literaturaren alorrean genero guztiak landu ditu: eleberria, saiakera eta poesia, eta haur lite-



Jean Louis Davant, 2014ko argazki batean. SYLVAIN SENCRESTO

raturako hainbat ipuin ere itzuli ditu.

Pastoral askoren egile da, eta 1957az geroztik, egunkari eta aldizkari askotan argitaratu ditu bere artikulua, euskaraz zein frantsesez. *Branka* (1971), *Zuzen* (1972), *Zabal* (1973-1976) eta *Ze-*

hatz (1977-1980) aldizkarietako zuzendaritzako kide izateaz gain, beste hainbat agerikaritan idatzi ditu artikulua. 2010ean, Euskaltzaindiak euskaltzain emerituz izendatu zuen.

Sari-emate ekitaldia 2017ko lehen hiruhilekoan egingo dute.

Ama hila

Agus Perez

Ama hilaren inguruan elkartu dira bi ahizpak urte luzez elkarrengandik urrundu ta bizi ostean. Amak banandu zituen azken finean, edo hobeto esanda, amaren zurruntasunak banandu zituen, muturreko zurruntasunak muturreko jarre-ak sorrarazita. Alaba batek herrialde urrun batean eraiki zuen bere bizitza, askatasun pertsonalaren inguruan, eta beste amaren agintean geratu zen, askoz bizimodu arruntagoa eramaten.

Hika Teatroak estreinatu berri duen lan honek emakumeen zentraltasuna bilatu du, giza sentimenduetan arakatzu eta bizi-erabakiak hartzeko motibak agerian utziz. Hala ere, nire irudiko, egileek ez dute erabat asmatu testuaren kontuan, une eta egoera batzuetan melodramaren ertzetik hurbilegi ibilita eta korapiloari molde konbentzionaleko amaiera emanda. Alde horretatik, nire zalantza da



KRITIKA Antzerkia 'Koadernoia zuri'

Egileak: Arantxa Iturbe, Agurtzane Inbaxurraga. **Zuzendaria:** Agurtzane Inbaxurraga. **Esenografia eta jantziak:** Xabi Mujika, Miren Inbaxurraga. **Argiak:** Xabier Lozano. **Antzeleak:** Agurtzane Inbaxurraga, Itziar Ituño, Miren Gojenola. **Lekua:** Igorreko Lasarte aretoa. **Eguna:** Urriak 8.

ez ote diren elementu eta pertsonaia gehiegi batu argumentu berean, protagonista bakoitzak pertsonaia bakar batean zentratu izan baltziz intentsitate gehiago lortu zukeelako, haietariko bakoitzaren auzian gehiago sakontzearen ondorioz.

Argumentua kaleidoskopio baten antzera eratu denez, ikuslearen rola puzzle eszeniko baten piezak ordenatzea izan da,

lotura zuzenik gabeko eszenak segida batean etorri direlako eta denboran aurrera eta atzera egin dugulako hainbatetan. Bestetik, errealtatearen planoaren errealtetik kanpokoekin konbinatu da eta agertokiaren diseinuak ihes egin dio logika zapalari, eszenaratzeko poetiko batean azaldu baitira gertakizunak. Adibidez, dekorazioaren elementuek –ateek, leihoak, oheak...– nortasun propioa edukitu dute eta tentsazio onirikoaren zerbitzura egon dira, beltzez jantzitako izaki misterioaren laguntza. Argien diseinu landuak ere giroak azpimarratu eta koloreen bidez sortu ditu etxe nagusitik kanpoko lekuak.

Era berean, berezia izan da ahotsen emandako tratamendua, ahots naturalaz gain *off*-eko ahotsak entzun baitira batzuetan, eta noizean behin bi ahizpek beren gogoetak plazaratu baitituzte agertokiko mutur banatan zeuden mikrofonoetatik. Azkenik, ohartu bat ahots naturalerik dagokienez: intonazioa, ahoskera eta modulazioa onekoak izan dira, baina bolumentan apal-apala izan da denbora osoan, eta horrek funtsezko indarra kendu dio emakumeengan zentratutako lan estimagarri honi.

SOSLAIA



ARGIA ASTEKARIA

Mayi Pelot. Zientzia fikzioan, aitzindari

M.L.

Bi libururik ez zuen argitaratu Mayi Pelotek, *Biharko oroitza-*

penak (1985) eta *Telemarauna* (1987), biak Maiatz argitaletxearekin, baina haren itzala literaturaz haragokoa izan zen. Euskararen Erakunde Publikoak (EEP) bideratutako Nola Erran hiztegi saillean zuzentzaile lanak egin zituen, Gure Irratiaren lehen urteetan fikziozko emankizunak sortu, eta Maiatz taldean ere hasiera-hasieratik jardun zuen. Aldizkariaren sorreran ere parte hartu zuen. Pelot herenegun hil zen 69 urterekin, eta atzo ehortzi zuten Baionan.

Mayi Pelotek (Talença, Okzitania, 1947) 1985ean kaleratu zuen bere lehen lana, *Biharko oroitza-penak* zientzia fikziozko sei ipuin futuristek osatutakoa. Han zegoen, adibidez, *Telelaberintoa*, *Maiatz* aldizkariaren aurretik argitaratutako narrazioa.

Bi urte geroago argitaratu zuen *Maiatzek Telemarauna* eleberri laburra, aurreko lana bezala, zientzia fikziozkoa.

Yoseba Peñak egonaldia egingo du Irlandan, 'Beste hitzak' programarekin

LITERATURA • Yoseba Peña idazleak (Sodupe, Bizkaia, 1977) literatur egonaldia egingo du Irlandan, urritik abendura, Donostia 2016 kultur hiriburutzaren *Beste hitzak / Other Words* programaren barruan. Egitasmo horrek Europan hizkuntza gutxituetan idazten duten idazleentzat sorkuntza egonaldien zirkuitu bat osatzea du helburu, eta 2019ra bitartean gauzatuko da.